



**2024KO APIRILAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko apirilaren 8an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Oramazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2024ko martxoaren 4an eta martxoaren 19an egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 23 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST euro ETA HAMAHIRU zentimokoa (75.555,13 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkaomendiko Jai Batzordeari.-

Lazkaomendiko festak antolatzeagatik, 4.900 €-ko dirulaguntza ematea. 4.900 € horietatik, 3.000 €-ko lehen zatia orain ordaintzea erabaki da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.02.338.00 partidatik egingo da.

Lazkaoko festetako esku programaren lehiaketako portada irabazleari.-

2023ko azaroaren 11ko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2024ko Lazkaoko festetako esku-programaren lehiaketako portada irabazleari 200 €-ko saria ematea erabaki zuen.



Lehiaketara aurkeztutako lanak 8 izan dira. Martxoaren 6an egindako Festa Batzordean, saria aho batez Haizea Milan Aparicio lazkaotarrari ematea erabaki zen.

Hau honela izanik, Haizea Milan Apariciori 200 €-ko saria ematea onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak.

IV.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Gai-zerrendako puntu hau jorrazeko dokumentaziorik aurkeztu ez denez, bertan behera uztea erabaki du Tokiko Gobernu Batzordeak.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jasoso eta ziurtatzen dut.



A long, sweeping blue ink signature that extends across the page from the logo area towards the right margin.